

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



## AINZIETA PASEALEKUA, TXOMIÑENE BERRIAREN KOTA BEREAN

Aintzieta pasealekuan (Txomiñene auzoa) kota igotzeko egiten ari diren lanak azken txanpan sartu dira, eta, eguraldiak asfaltatzen uzten badu, datorren astean irekiko dute bidea.

Gune Publikoetako eta Hiriko Proiektuetako zinegotzi ordezkari Marisol Garmendia sozialistak adierazi duenez, “bi hilabetez obretan egon ondoren, amaitzeaz daude lanak, eta laster pasatu ahal izango dira ibilgailuak Loiola eta Martutene lotzen dituen errepide horretatik. Obra epe barruan egin da, eta espero dugu euririk ez egitea, lanak bukatu ahal izateko”.

Obra 1,1 milioi euro kostatu da, eta, denera, 11.226 m<sup>3</sup> betegarri jarri dute, San Bartolome muinoan egiten ari diren obretako lurra baliatuz. Helburua zen pasealekuaren kota Txomiñene berriarekin berdintzea, uniformetasuna gordetzeko eremu osoan; hala ere, pasealekuaren muturretan lehengo kotara jaisten da, malda txiki baten bidez.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



Gainera, «zuhaitzen banda berde bat ere jarriko da, 2,5 metroko zabalerakoa, bidegorri eta espaloi berriak Aintzietako bideko trafikotik babesteko»; horrez gain, Adifen geralekuko arrapalak eta eskailerak egokitu egingo dira. Horri dagokionez, Garmendiak adierazi du, nahiz eta bidea ireki, lan horiek egiten jarraituko dutela, bai eta espaloi berriak egiten eta inguruaren berrurbanizazioa amaitzen ere.